



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko apirilaren 13a

35. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, aurrezki kutxen arloko politika orokorrari buruzkoa, Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak egina (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorren proiektua. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu “zerga-amnistia” deitutakoaren aurka dagoela. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak “zerga-amnistia” deitutakoa errefusatzeko baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikari” eta “Osasun laguntza beste zentro batzuetan” izeneko kontusailak handitzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (6. or.).
- Galdera, helikoptero medikalizatua poliziaren zaintza-lanetan erabiltzeari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (7. or.).
- Galdera, CaixaBankek Banca Cívica erosi izanari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (7. or.).
- Galdera, Nafarroak azken urteotan Estatuari eginiko diru-ekarpenei buruzkoa, kontzeptuen arabera xehakaturik, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (8. or.).
- Galdera, E mailako 65 lanpostu betetzeko oposizioan jarraitutako prozedurari buruzkoa. Galdera erretiratzeko (8. or.).
- Galdera, Donejakue Bideko autobiarene erakuntzaren emakida-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Erroko eta Mezkirizko tunelak lizitatu eta eraikitzeko egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Santa Crizko aztarnategi erromatarrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, Foruzaingoak erabiltzen duen helikopteroak marihuana landareak bilatzen emandako hegaldi-orduei eta horiek eragiten duten gastuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako eta merkataritzako eta industriako enpresentzako kapital-transferentzietan abenduaren 31n. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak kapital transferentzien bidez izanen dituen diru-sarrerei buruzko abenduaren 31ko aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako transferentzia arruntetan abenduaren 31n. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak transferentzia arrunten bidez abenduaren 31rako izanen dituen diru-sarrerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta bestelako enpresa pribatuentzako transferentzia arruntetan abenduaren 31n. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta merkataritzako eta industriako enpresentzako eta bestelako enpresa pribatuentzako kapital-transferentzietan abenduaren 31n. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

E saila:**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK****Jabeldura, aurrezki kutxen arloko politika orokorrari buruzkoa.***PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko jabeldura, aurrezki kutxen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Nafarroako Gobernuak aurrezki kutxen arloan daraman politika orokorrari buruzko jabeldura.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorren proiektua.*IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorren proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Ministroen Kontseiluak Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektua onetsi zuen 2012ko martxoaren 30ean.

2012rako aurrekontuak 14.000 milioi euro murriztu ditu (%16,9) inbertsioan eta gastu publikoan. Murrizketarik larrienak hezkuntzan (% 21,2), osasunean (%13,7), enpleguan (%7,4), sustapenean (% 34,6), nekazaritzan (% 31,2) eta garapenerako lankidetzan (%71,2) gertatu dira. Estatuak Mendekotasun Legea ezartze aldera egin beharreko ekarpena zerora pasa da.

PPk aurkeztutako aurrekontuak suntsipenaren aurrekontuak dira. Enplegua suntsituko dute, ekonomia-jarduera suntsituko dute, zerbitzu publikoak suntsituko dituzte eta gizarte-politikak suntsituko dituzte. Sortuko duten bakarra izanen dira langabezia, desberdintasun, pobrezia eta sufrimendu gehiago.

Dekretu horretako neurri bakar bat ere ez dago bideratuta enplegua sortzera. Aitzitik, neurri horiek langabezia eta krisia areagotzea dakarte, bai eta egunetik egunera pertsona gehiagok sufrimendu handiagoa pairatzea ere.

Aurrekontu horrek 2010eko maiatzetik aplikatu izan diren murrizketa-politiken bidea jarraitu eta areagotzen du. Neurri horiek ez dute ez ekonomia suspertzen ez enplegua sortzen laguntzen. Hasi-tako bideak atzeraldian eta ekonomia-depresioan sakontzera garamatza, eta Estatu osoan 6 milioi langabetu baino gehiago egotea ekarriko du.

Demokraziaren eta Gizarte Estatuaren aurkako merkatu-kolpe baten aurrean gaude. Ekonomiako ministro De Guindos jaunak jendaurrean adierazi zuen: "Ez badugu guk egiten, beste batzuek egiten dute." Adierazpen horiek ikusita, "merkatu-kolpeaz" hitz egin beharra dago.

PPren Gobernuak bere neurriak justifikatze aldera esaten du nahitaez bete behar dela defizitarren helburua.

Halere, zerga bidezko diru-sarrerak erori egin dira, krisi ekonomikoarengatik ez ezik aberatsenei urte askoan egindako opari eta beherapen fiskalengatik eta zerga-iruzurraren eta zerga-paradisuen aurka borrokatzeko borondate politiko ezagatik ere.

Baina PPren Gobernua harantzago doa, eta zerga-delitugileentzako zerga-amnistia bat ezarri du aurrekontuetan; hau da, jatorria espekulazioan, ustelkerian eta delituan duen diru beltzarentzat.

Halatan, % 10eko isun soila ordainduz gero diru beltza zuritzen ahalko da, eta gainera ez da jakitera emanen zerga-amnistian babestu diren delitugileen izena.

Neurri horrek zuzen-zuzenean jotzen du legearen aurrean denok berdinak garelako printzipioaren aurka eta Zuzenbide Estatuaren aurka. Eta gizarte-justiziaren gaineko kontzepzio ooren aurkako atentatua ere bada.

Langileen familiei zergak igotzen zaizkien bitartean eta lana galdu dutelako beren hipotekak ordaindu ezin izateagatik etxea utzarazten zaien bitartean, amnistia ematen zaie ustelkeriari, espekulazioari edo delituari esker diru beltza dutenei.

Urtean 30.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituen langile batek bere diru-sarreraren % 25 baino gehiago ordaindu behar du zergetan; zerga-delitugile batek, aldiz, % 10 ordaindu beharko du soilik.

Horren aurrean, bidea da zerga-iruzurra jazar-tzea, zerga-paradisua amaiaraztea eta gutxienez ere langileek ordaintzen dituzten tasa eta ehuneko berberak ordain ditzaten, errenta handiek, ondare handiek eta enpresa multinazionalak.

Zergak ordaindu behar dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiek behar bezala ordainduko bali-tuzte, Ongizatearen Estatuaren osasun egoera ona izanen litzateke, eta krisiaren eta espekulazioaren aurka babesturik egonen litzateke.

Izan ere, langileek jasaten dutena baino askoz ere txikiagoa da kapital-errentek eta enpresa handiek jasaten duten zerga-presioa.

Krisiak nabarmen egin du okerrera, eta austeritate politikak egoera hori areagotu besterik ez dute egin; horrek agerian uzten du murrizketen politikak porrot egin duela eta beharrezkoa eta presakoa dela politika hori zuzentzea, bai Espainiako Estatu bai Europa osoan ere.

Krisia ezin da aitzakia bihurtu sektore publikoa pribatizatzeke eta murrizteke eta langileen baldintzak okertzeko. Publiko denaren aurka egitea Demokraziaren aurka egitea da.

Ekonomia suspertzeko plan batek baizik ezin du alderantzikatu egungo joera, zeinean langabezia baita krisitik ateratzeko zamarik handiena.

PPren politikak, ordea, ez dute bide hori jarraitzen. Ez dute neurri bakar bat ere jasotzen ekonomia produktiboa eta enplegua sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorren proiektua errefusatzen duela, eta Estatuko Gobernuari exijitzen dio proiektua erretira dezan eta enplegua sortzeko nahiz ekonomia suspertzeko aurrekontuak aurkez ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du PPren Gobernuak aurkeztu duen Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorren proiektuak soilik balioko duela enplegua, ekonomia-jarduera, zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak suntsitzeko, eta soilik ekarriko duela langabezia gehiago, berdintasun ezaren areagotzea, pobrezia gehiago eta sufrimendu gehiago.

3. Nafarroako Parlamentuak PPren Gobernuak onetsitako zerga-amnistia errefusatzen du, uste baitu larriki urratzen dituela legearen aurrean berdinak izatearen printzipioa eta Zuzenbide Estatu, eta Estatuko Gobernuak premiatzen du zerga-amnistia indargabetu dezan, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du ez dezan ez onetsi ez aplikatu zerga-amnistia hori.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere babesa ematen diola zerga-erreforma bati, baldin eta lortzen badu langileek ordaintzen dituzten tasa eta ehuneko berberak ordain ditzaten, gutxienez ere, errenta handiek, ondare handiek eta enpresa handiek.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu “zerga-amnistia” deitutakoaren aurka dagoela.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du PPren Espainiako Gobernuak proposatutako “zerga-amnistia” deitutakoaren gisako zerga-neurri bidegabe eta onartezinen aurka dagoela, berekin dakarrelako zerga-iruzurra jazartzeari uko egitea eta saritzea nor eta zergadun diren aldetik beren betebeharrak bete ez dituztenak.

2.- Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak azaltzen du zerga-iruzurraren jazarpenarekin konprometituta dagoela eta itzurpen fiskala eragozteko behar diren neurri guztiak jartzeko borondatea duela, egoera hori bereziki iraingarria baita egungo krisi ekonomikoan.”

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak “zerga-amnistia” deitutakoa errefusatzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du errefusatu egiten duela Rajoy jaunak martxoaren 30ean –ostirala– Estatuko aurrekontuekin batera

aurkeztutako “zerga-amnistia” deitutakoa, eta, gure erkidegoak zerga arloan dituen eskumenen babesean, neurri hori Nafarroan ez aplikatzeko borondatea adierazten du.”

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikari” eta “Osasun laguntza beste zentro batzuetan” izeneko kontusailak handitzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikari” eta “Osasun laguntza beste zentro batzuetan” izeneko kontusailak handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazcano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer arrazoi dago “Osasun laguntza klinikoa Nafarroako Unibertsitatea Klinikari” eta “Osasun laguntza beste zentro batzuetan” izeneko kontusailak hurrenez hurren 2.000.000 eta 271.085 € handitzeko?

Iruñean, 2012ko martxoaren 30ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, helikoptero medikalizatua poliziaren zaintza-lanetan erabiltzeari buruzkoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, helikoptero medikalizatua poliziaren zaintza-lanetan erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernu-ko lehendakariorde eta Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barneko kontseilariak edo Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezaten:

Iragan martxoaren 29ko manifestazioan –Iruñean greba orokorra egin zen egunean, alegia–, osasun-ekipamendu delikatuarekin medikalizatutako helikopteroa zen manifestazioaren gainetik hegan ibili zen Nafarroako Gobernuaren helikopteroa.

Zer dela-eta egin zituen polizia-zaintzako egin-kizunak helikoptero medikalizatuak?

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, CaixaBankek Banca Cívica erosi izanari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, CaixaBankek Banca Cívica erosi izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernu-ko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Caixabank-ek Banca Cívica osoa erosi ostean, zertan gelditzen da Foruaren Hobekuntzako 56. f) artikulua Nafarroari aitortzen dion eskumena?

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroak azken urteotan Estatuari eginiko diru-ekarpenei buruzkoa, kontzeptuen arabera xehakatuta.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak azken urteotan Estatuari eginiko diru-ekarpenei buruzkoa, kontzeptuen arabera xehakatuta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko

rreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Estatuko 2012rako Aurrekontu Orokorrek jasotzen dutenez, "Nafarroak Estatuari egindako ekarpena" 631 milioi eurokoa izanen da guztira. Hori dela eta, parlamentari honek hau jakin nahi du:

1. Nafarroako Gobernua ados al dago Estatuako Aurrekontu Orokorretan jasotako zenbateko horrekin?

2. Ba al dago zenbateko hori ezartzera dararmaten kontzeptuen xehakatzeari buruzko informazio zehatzik?

3. "Nafarroak Estatuari egindako ekarpena" ize-nekoaren azken hamar urteotako konparazio-taula, kontzeptuen arabera xehakatu, igor daki-gun eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, E mailako 65 lanpostu betetzeko oposizioan jarraitutako prozedurari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Víctor Rubio Martínez jaunak aurkezturiko galdera, E mailako 65 lanpostu betetzeko oposizioan jarraitutako prozedurari buruzkoa, erretiratu izanari dago-

kionez. Galdera hori 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko apirilaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Donejakue Bideko autobia-erakuntzaren emakida-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Donejakue Bideko autobia-erakuntzaren emakida-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 23ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzuteko, Donejakue Bideko autobia-erakuntzari buruz (PES-000176). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak eman ditu jada aipatzen den txostenari buruzko azalpenak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 14an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Donejakue Bideko autobia-erakuntzaren esleipen-hartzaileari ordaindutako soberako milioi kopuruari buruz. Hona hemen Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna.

Galderan aipatzen den gaia askotariko ekimen parlamentarioen xede izan zen –ahozko galderak eta mozioak– iragan legegintzaldian.

Alde batera utzita Donejakue Bideko autobia eraikitze eta ustiatze kontratuari buruz bere garaian hartutako erabakiak, horiek eztabaidagarriak izan baitaitezke kudeaketa publikoaren ikuspuntutik, kontuan hartu behar da auzi hori itxita dagoela ikuspuntu juridikoari dagokionez.

Nafarroako Gobernuak jada adierazi zuenez aipatu erantzun parlamentarioetan, ez Nafarroako Parlamentuko zerbitzu juridikoen ez Nafarroako Gobernuaren Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak, horretarako prestatu zituzten txosten bantatzen, ez zuten ordenamendu juridikoaren arauhausterik atzeman Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua zenak Donejakue Bideko autobia eraikitze eta ustiatze kontratuari dagokionez egin zituen jarduketetan. Txosten horietan aztertutako administrazio-egintzetan ez dago ez deuseztasun ez deuseztagarritasun kasurik; hori dela eta, aipatu ekintzak berrikusi ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak, legez ezarritakoak, ez dira betetzen.

Horrekin lotuta, adierazgarria da Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuaren 2008ko martxoaren 31ko txostena, bertan ondorioztatzen baita ez dela bidezkoa azterlanaren xede ziren foru aginduak –urtarrilaren 29ko 97/2004 Foru Agindua eta apirilaren 12ko 296/2005 Foru Agindua– kaltegarritzat deklaratzeko, legearen eta antolamendu juridikoaren araberrako administrazio-egintzak direlako. Horretaz gain, kontuan hartu behar da foru agindu horiek kaltegarritzat deklaratzeko legezko epea lau urtekoa zela, administrazio-egintzak eman zirenetik; eta epe hori, bi kasuetan, iragan egin da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bategineko 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko urriaren 17an

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano

Galdera, Erroko eta Mezkirizko tunelak lizitatu eta eraikitzeko egutegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Erroko eta Mezkirizko tunelak lizitatu eta eraikitzeko egutegiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Erroko eta Mezkirizko tunelak eraikitzeko egutegiari buruz. Hona hemen Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariaren erantzuna.

• Erroko tunela

2010eko maiatzaren 10ean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustatutako "Iruñetik Frantziara Luzaidetik barrena doan NA-135 errepidean dagoen Erroko tunelari buruzko informazio azterlana". Era berean, jendaurrean jarri zen eta ukitutako udalei entzunaldia eskaini zitzaion, Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritako ondorioetarako eta baita Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozeduraren ondorioetarako.

Jendaurreko epea amaitu eta gero, Ingurumen eraginari buruzko deklarazioa formulatzea eta udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeko eskatu zen. Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren irailaren 24ko 1466/2010 Ebazpenaren bidez, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustatutako "Iruñetik Frantziara Luzaidetik barrena doan NA-135 errepidean dagoen Erroko tunelari buruzko informazio azterlanari" buruzko Ingurumen eragineko deklarazioa eman zen.

Nafarroako Gobernuaren 2010eko urriaren 13ko Erabakiaren bidez onetsi zen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustatutako "Iruñetik Frantziara Luzaidetik barrena doan NA-135 errepidean dagoen Erroko tunelari buruzko informazio azterlana" udalez gaindiko proiektu sektoriala, "Iparretik Hegora" hautabidearen arabera.

Ingurumen eraginari buruzko deklarazioa eman eta udalez gaindiko proiektu sektoriala onetsi ondoren, Erroko tunela eraikitzeko proiektua idazteko lanak hasi ziren. Lan horiek 2011ko maiatzaren 11n amaitu ziren.

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilariaren urriaren 13ko 54/2011 Foru Aginduaren bidez, behin-behinekoz onetsi zen Erroko tunela eraikitzeko proiektua eta, halaber, jendaurrean jarri eta ukitutako udalei entzunaldia eskaini zitzaion.

Jendaurreko epea eta entzunaldia amaitu ondoren, jasotako alegazioak aztertuko dira eta beharrezkoak diren aldaketak egingen dira proiektuan, halako moduz non 2012ko maiatzaren behin betiko onespenerako prest egonen baita. Behin betiko onespena egingen da lanak hasi aurretik.

• Mezkirizko tunela

2010eko maiatzaren 10ean, Nafarroako Gobernuak erabaki zuen udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustatutako "Iruñetik Frantziara doan NA-135 errepidean dagoen Mezkirizko tunelari buruzko informazio azterlana". Era berean, jendaurrean jarri zen eta ukitutako udalei entzunaldia eskaini zitzaion, Lurraldearen antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak ezarritako ondorioetarako eta baita Ingurumen Eraginaren Ebaluazio prozeduraren ondorioetarako.

Proiektu horri dagokionez, oraindik ez da adostu proiektu gisa garatu beharreko hautabidea; hori dela eta, oraindik ez dira ingurumen eraginari buruzko deklarazioa eta udalez gaindiko proiektu sektorialaren onspena eskatu.

Proiektu hori mantsoago izapidetzen ari da; izan ere, konponbidea adostu behar da Erroko Udalarekin, Aurizberriko Kontzejuarekin eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuarekin.

Hala ere, 2012ko amaieran proiektua behin betiko onetsita egonen da, 2013an lanak hasteko moduan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko urriaren 18an

Sustapen eta Etxebizitzako kontseilaria: Anai Astiz Medrano

Galdera, Santa Crizko aztarnategi erromatarrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Santa Crizko aztarnategi erromatarrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Santa Crizko (Eslaba) aztarnategi erromatarrari buruz (PES-00197). Hona Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna.

2011ko aurrekontuan agertzen den 25.000 euroko kontusaila betetzeko asmoa dugu; izan ere, kontusail horretan ez dute eraginik izan defizitaren helburua betetze aldera eginiko kreditu-atxikipenek.

Aztarnategian etorkizunean egingen diren inbertsioak lotuta daude, alde batetik, gaur egun eten-

da dagoen Nafarroako Landa Garapen Iraungarri-rako Planaren etorkizunari, plan horretan jasota baitago aipatu proiektua, eta, bestetik, Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioak, eskuragarri izanen duen diru kopuruarekin, eraikitzen ari den autobiarene esleipen-hartzailearekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

Kultura Zuzendaritzak plan zuzendaria idatzi zuen 2005 eta 2007 bitartean.

Aztarnen zabalkundea aurkikuntzen garrantziaren arabera izanen da; dena den, orain goiz da hori jakiteko.

Aztarnak, garrantziaren arabera, gorde egingen dira, indarrean dagoen araudian ezarritakoari jarraikiz, eta, horretarako, kontuan hartuko dira aurkitu ziren tokiarekiko hurbiltasuna, haien kontserbazio egokirako baldintzak eta haien eginkizun kultural eta zientifiko onena.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko urrian

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Foruzaingoak erabiltzen duen helikopteroak marihuana landareak bilatzen emandako hegaldi-orduei eta horiek eragiten duten gastuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du Foruzaingoak erabiltzen duen helikopteroak marihuana landareak bilatzen emandako hegaldi-orduei eta horiek eragiten duten gastuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Foruzaingoak erabiltzen duen helikopteroak marihuana landareak bilatzen emandako hegaldi-orduei eta horrek eragiten duen gastuari buruz (8-11/PES-00189). Hona Nafarroako Gobernuko Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren erantzuna.

1) Foruzaingoak zenbat hegaldi-ordu egiten ditu helikopteroarekin marihuana-sailak bilatzen?

Horri dagokionez, esan behar da 2011n 27 orduz erabili direla Nafarroako Gobernuak kontraturiko helikoptero-zerbitzuak, Foruzaingoa eskura daitezkeen erregistroen arabera.

Zerbitzu horren helburuak prebentzioak eta disuasioak dira nagusiki, eta, egiaztatu denez, marihuana landare kopurua nabarmen murriztu da aurreko urteetan prebentzio-jarduera hori abian jarri geroztik.

2) Hegaldi-ordu horiek erregistratuta baldin badaude, zenbatetsi al da ordu horiek eragindako kostu ekonomikoa?

Horri buruz, esan behar da Nafarroako Gobernuak zenbait urterako kontratua duela, eta horren bidez ezartzen dela helikoptero-zerbitzuaren enpresa esleipen-hartzaileak egin beharreko

hegaldi-ordu kopuru jakina, kontratuaren indarraldi osorako, prezio itxi baten truke.

Uda igaro ondoren, hori izaten baita aireko ibilgailuak gehien erabiltzen diren garaia, ia ziur esan dezakegu xede horretarako helikopteroaren erabilerak ez duela gainkosturik izanen Nafarroako Gobernuarentzat.

Horrenbestez, kontratuaren epemuga bitartean helikopteroen erabilera handia eskatzen duten inguruabar oso ezohikoak gertatzen ez badira behintzat, helikopteroa marihuana landareak bilatzeko erabiltzeak ez du gastu berezirik ekarri Administrazioarentzat.

Halaber, esan behar da kontratatutako enpresaren helikoptero balioaniztunaren erabilera beti egon izan dela Nafarroako Gobernuko beste zerbitzu batzuen edota Foruzaingoa beraren lehentasunezko beste erabilera batzuen mende.

3) Foruzaingoak zenbat zehapen-espeditente abiarazi ditu? Zenbat landare konfiskatu ditu?

Horri dagokionez, esan behar da 2011n Foruzaingoak 15 atestatu izapidetu dituela zigor arloko agintari eskudunen aurrean, eta 29 pertsona atxilotu ditu substantzia estupefazianteen trafikoarekin zerikusia duten ustezko arau-hauste penalak tarteko.

Halaber, 1798 marihuana landare konfiskatu dira Nafarroako Foru Komunitate osoan, bai eta 10.048 gramo substantzia ere, kontsumorako prestatuak.

456 salaketa administratibo izapidetu dira agintari eskudunen aurrean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakarietzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako eta merkataritzako eta industriako enpresentzako kapital-transferentzietan abenduaren 31n.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du jakitekoa Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako eta merkataritzako eta industriako enpresentzako kapital-transferentzietan abenduaren 31n.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Landa

Garapen eta Ingurumen Departamentua izandakoak nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako eta merkataritzako eta industriako enpresentzako kapital-transferentzietan eginiko gastuen bilakaerari buruz (8-11-/PES-000192). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua izandakoak nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako eta merkataritzako eta industriako enpresentzako kapital-transferentzietan eginiko gastuen aurreikuspena, abenduaren 31koa, 33.603.853 eta 14.133.557 eurokoa da, hurrenez hurren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak kapital transferentzien bidez izanen dituen diru-sarrerei buruzko abenduaren 31ko aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak kapital transferentzien bidez izanen dituen diru-sarrerei buruzko abenduaren 31ko aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua izandakoak izandako kapital transferentzien bidezko diru-sarrereren bilakaerari buruz (8-11-/PES-000191). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua izandakoak eginiko transferentzia arruntaren bidezko diru-sarrereren aurreikuspena, abenduaren 31koa, 16.584.995 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako transferentzia arruntetan abenduaren 31n.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako transferentzia arruntetan abenduaren 31n.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak

galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua izandakoak nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako transferentzia arruntetan eginiko gastuen bilakaerari buruz (8-11-/PES-000193). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua izandakoak nekazaritzako eta abeltzaintzako enpresentzako transferentzia arruntetan eginiko gastuen aurreikuspena, abenduaren 31koa, 24.049.040 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak transferentzia arrunten bidez abenduaren 31rako izanen dituen diru-sarrerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak transferentzia arrunten bidez abenduaren 31rako izanen dituen diru-sarrerei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak

galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua izandakoak eginiko transferentzia arrunten bidezko diru-sarreren bilakaerari buruz (8-11-/PES-000194). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua izandakoak eginiko transferentzia arrunten bidezko diru-sarreren aurreikuspena, abenduaren 31koa, 35.331.821 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta bestelako enpresa pribatuentzako transferentzia arruntetan abenduaren 31n.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du jakitekoa Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta bestelako enpresa pribatuentzako transferentzia arruntetan abenduaren 31n.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak

galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua izandakoak bestelako enpresa pribatuentzako transferentzia arruntetan eginiko gastuen bilakaerari buruz (8-11-/PES-000195). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua izandakoak bestelako enpresa pribatuentzako transferentzia arruntetan eginiko gastuen aurreikuspena, abenduaren 31koa, 46.502.677 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta merkataritzako eta industriako enpresentzako eta bestelako enpresa pribatuentzako kapital-transferentzietan abenduaren 31n.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Manu Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du jakiteko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko Departamentuak zenbat izanen duen gastatuta merkataritzako eta industriako enpresentzako eta bestelako enpresa pribatuentzako kapital-transferentzietan abenduaren 31n.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko irailaren 30eko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Manuel Ayerdi Olaizola jaunak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Berrikuntza,

Enpresa eta Enplegu Departamentua izandakoak merkataritzako eta industriako enpresentzako eta bestelako enpresa pribatuentzako kapital-transferentzietan eginiko gastuen bilakaerari buruz (8-11-/PES-000196). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna.

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentua izandakoak merkataritzako eta industriako enpresentzako eta bestelako enpresa pribatuentzako kapital-transferentzietan eginiko gastuen aurreikuspena, abenduaren 31koa, 30.608.314 eta 140.302.876 eurokoa da, hurrenez hurren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2011ko urriaren 24an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu